

BESTELAKO XEDAPENAK

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

5930

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 12koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programaren aurrekontu-zuzkiduraren berresleitzea eta bosgarren zabaltzea erabakitzen duena, NextGenerationEU Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Lehenengoa.– 2021eko ekainaren 30eko 155. zenbakiko BOEn argitaratutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari eta bizitegi-sektorean sistema tekniko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programak egikaritzeko autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei laguntzak zuzenean ematea onartzen duen ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuak ezarri zituen energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari eta bizitegi-sektorean sistema tekniko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarriak emateko oinarri arautzaileak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Euskadiren kasurako dagokion aurrekontua, Errege Dekretu horren V. eranskinean ezarritako laguntzaren zenbateko totalari dagokionez, 37.173.437 eurokoa da.

Bigarrena.– 2021eko urriaren 1eko 197. zenbakiko EHAAn argitaratutako Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2021eko irailaren 22ko Ebazpenak energia berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programa arautzen duten oinarriak onartu, deitu eta argitaratu zituen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Hirugarrena.– Ondoren, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programaren oinarrien edukia aldatu zen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, honako hauen bidez:

– Energia berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programa arautzen duten oinarriak onartzen, deitzen eta argitaratzen dituen Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2021eko irailaren 22ko Ebazpena aldatzen duen Energiaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2022ko apirilaren 20ko Ebazpena, betiere Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (2022ko maiatzaren 3ko 84. zenbakiko EHAA).

– Energia berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programa arautzen duten oinarriak onartzen, deitzen eta argitaratzen dituen Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2021eko irailaren 22ko Ebazpena bigarrenez aldatzen duen Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2022ko ekainaren 29ko Ebazpena, betiere Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (2022ko uztailaren 15eko 137. zenbakiko EHAA).

Laugarrena.– Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2022ko uztailaren 8ko Ebazpen bidez, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari, eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programaren aurrekontu-zuzkidura

aldatu zen, betiere Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2021eko irailaren 22ko Ebazpen bidez ezarritako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, eta ondoriozko aurrekontu-zuzkiduraren berri eman zen (2022ko uztailaren 26ko 143. zenbakiko EHAA).

Bereizitako bi jatorri zituen Ebazpen horretan jasotako diru-kopuruaren igoerak:

a) Alde batetik, 37.173.436,99 euroko zenbateko gehigarria, 2022ko ekainaren 10eko Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuko presidentearen Ebazpen bidez gauzatutakoa. Ebazpen horretan, Euskal Autonomia Erkidegoari 37.173.436,99 euroko zenbateko gehigarria ematea erabaki zen energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitazeari, eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programarako, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

b) Beste alde batetik, SEEP Funtsetatik datozen baliabideekiko 20.000.000 euroko zenbateko gehigarri eta osagarria, EEEn baliabide propioetatik ateratakoa.

Bosgarrena.– Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2023ko apirilaren 5eko Ebazpen bidez, pizgarri-programa bakoitzari dagokion zenbatekoa berresleitu zen, 2021eko irailaren 22ko Ebazpen bidez Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan ezarritako energia berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitazeari, eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programaren aurrekontu handituari buruzkoa. Deialdiaren diru-zuzkidura 66.784.314,28 eurora iristen zen Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kargurako finantzaketari dagokionez.

Seigarrena.– Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2023ko urriaren 11ko Ebazpen bidez, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitazeari, eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programaren aurrekontu-zuzkidura aldatu zen, betiere Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2021eko irailaren 22ko Ebazpen bidez ezarritako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (2023ko urriaren 25eko 204. zenbakiko EHAA), eta ondoriozko aurrekontu-zuzkiduraren berri eman zen 12.242.486,40 euroko zenbateko gehigarriarekin (378.633,60 euroko zeharkako gastuak kendu ondoren), Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kargura emandako funtsetatik datorrena.

Zazpigarrena.– Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2023ko azaroaren 30eko Ebazpen bidez, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitazeari, eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programaren aurrekontu-zuzkidura aldatu zen, betiere Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2021eko irailaren 22ko Ebazpen bidez ezarritako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, eta ondoriozko aurrekontu-zuzkiduraren berri eman zen (2023ko abenduaren 12ko 235. zenbakiko EHAA), 27.738.773,55 euroko zenbateko gehigarriarekin (1.459.935,45 euroko zeharkako gastuak kendu ondoren), Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kargura emandako funtsetatik datorrena. Deialdiaren diru-zuzkidura 106.765.574,23 eurora iristen zen Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kargurako finantzaketari dagokionez.

Zortzigarrena.– Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2024ko uztailaren 15eko Ebazpen bidez, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitazeari, eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programaren aurrekontu-zuzkidura aldatu zen, betiere Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2021eko irailaren 22ko Ebazpen bidez ezarritako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, eta ondoriozko aurrekontu-zuzkiduraren berri eman zen (2024ko uztailaren 30eko 148. zenbakiko EHAA), 4.127.323,00 euroko zenbateko gehigarriarekin, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kargura emandako funtsetatik datorrena.

Igoera hori pizgarri-programa finantzatzeko dagoen Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren osagaien artean banatu zen. Gehikuntza horren ondoren, deialdiaren diru-zuzkidura 106.765.574,23 eurora iritsi zen Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kargurako finantzaketari dagokionez.

Bederatzigarrena.– 2024ko abuztuaren 23ko 164. zk. EHAA n argitaratutako EEEko zuzendari nagusiaren 2024ko abuztuaren 8ko Ebazpenaren bidez, 2024ko uztailaren 15eko Ebazpenaren bidez onartutako aurrekontu-gehikuntzaren azken banaketa onartu zen. Ebazpen horren bidez, energia berriztagarriko iturrietako autokontsumo eta biltegitratzeari lotutako pizgarri-programaren aurrekontu-zuzkiduraren laugarren aldaketa erabaki zen, bai eta egoitza-sektorean sistema termiko berriztagarrien ezarpena ere, Europar Batasunak finantzatutako NextGenerationEU – Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Pizgarri-programaren 3. oinarrian aurreikusitako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren konturako diru-kopurua (110.892.897,23 euro) honako zenbateko hauen arabera banatuta geratu da pizgarri-programa bakoitzerako:

1. pizgarri-programa – Zerbitzu-sektorean, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe.	15.294.559,90 €
7. osagaia – Autokontsumo berriztagarriaren kategoria	6.857.485,83€
8. osagaia – Biltegitratze kategoria	1.055.559,82€
31. osagaia – Autokontsumo berriztagarria kategoria / Biltegitratze kategoria	7.381.514,25 €
2. pizgarri-programa – Ekonomiaren beste produkzio-sektore batzuetan, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe.	20.417.222,40 €
7. osagaia – Autokontsumo berriztagarriaren kategoria	17.502.218,37 €
8. osagaia – Biltegitratze kategoria	1.817.211,58€
31. osagaia – Autokontsumo berriztagarria kategoria / Biltegitratze kategoria	1.097.792,45 €
3. pizgarri-programa – Zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea (8. osagaia).	3.219.188,47€
4. pizgarri-programa – Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe.	55.361.506,12 €
7. osagaia – Autokontsumo berriztagarriaren kategoria	28.192.288,79 €
8. osagaia – Biltegitratze kategoria	7.908.141,38 €
31. osagaia – Autokontsumo berriztagarria kategoria / Biltegitratze kategoria	19.261.075,95 €
5. pizgarri-programa – Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean lehendik dauden energia-iturri berriztagarrietan oinarritutako autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea.	475.121 €
8. osagaia – Biltegitratze kategoria	339.405 €
31. osagaia – Autokontsumo berriztagarria kategoria / Biltegitratze kategoria	135.716 €
6. pizgarri-programa – Bizitegi-sektorean energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea (7. osagaia).	16.125.299,34 €

Hamargarrena.– 477/2021 Errege Dekretuak autonomia-erkidego bakoitzaren eta, Ceuta eta Melilla hirien eskura uzten du aurrekontuaren banaketa egitea diruz lagun daitezkeen definitutako jarduketan artean. Era berean, 10. artikuluko 12. apartatuak ahalbidetzen du, dagokion deialdiaren amaieraren ondoren, dagoen funtsen saldoa pizgarri-programen artean konpentsatzea, osagai beraren barruan beti, bai eta haietan txertatzea kategoria berean zuzeneko inbertsioen finantzaketara bideratu ezin izan diren aurrekontuari dagozkion soberakinak ere.

EEEk deitutako laguntza-programaren bilakaerak eta emandako zuzeneko inbertsioen emakidak agerian uzten dute funtsak berresleitzeko premia, ahalik eta laguntza-eskaera gehien biltzearen. Zehazki, funtsen lekualdatzea honetan datza:

– 1. pizgarri-programako 2.136.661,74 euroko kopurua 2. pizgarri-programari berresleitzea, kontuan izanda 1. pizgarri-programarako konprometitutako aurrekontua txikiagoa dela programaren aurrekontu-zuzkidura baino, eta 2. pizgarri-programa funts gehiagorekin zuzkitzeko premia aurreikusten dela.

– 2.490.144,39 euroko kopurua lekualdatzea zuzeneko inbertsioetarako erreserbatutako soberakinen kontzeptuan, eta kopuru horretan zabaltzea Europar Batasunak - NextGenerationEUk finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari, eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programaren deialdiaren aurrekontu-hornidura.

Azaldutakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari, eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programaren aurrekontu-zuzkiduraren berresleitzea eta zabaltzea erabakitzea, NextGenerationEU Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. Pizgarri-programaren 3. oinarrian aurreikusitako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren konturako diru-kopurua (113.383.041,62 euro) honako zenbateko hauen arabera banatzen da pizgarri-programa bakoitzerako:

1. pizgarri-programa – Zerbitzu-sektorean energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe.	13.157.898,16 €
7. osagaia – Autokontsumo berriztagarriaren kategoria	6.857.485,83€
8. osagaia – Biltegitratze kategoria	1.055.559,82€
31. osagaia – Autokontsumo berriztagarria kategoria / Biltegitratze kategoria	5.244.852,51 €
2. pizgarri-programa – Ekonomiaren beste produkzio-sektore batzuetan, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe.	22.553.884,14 €
7. osagaia – Autokontsumo berriztagarriaren kategoria	17.502.218,37 €
8. osagaia – Biltegitratze kategoria	1.817.211,58€
31. osagaia – Autokontsumo berriztagarria kategoria / Biltegitratze kategoria	3.234.454,19 €
3. pizgarri-programa – Zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea (8. osagaia).	3.219.188,47€

4. pizgarri-programa – Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe.	56.708.858,79€
7. osagaia – Autokontsumo berriztagarriaren kategoria	28.491.539,94 €
8. osagaia – Biltegitratze kategoria	8.956.242,9€
31. osagaia – Autokontsumo berriztagarria kategoria / Biltegitratze kategoria	19.261.075,95 €
5. pizgarri-programa – Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean lehendik dauden energia-iturri berriztagarrietan oinarritutako autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea.	611.039,32€
8. osagaia – Biltegitratze kategoria	475.323,32 €
31. osagaia – Autokontsumo berriztagarria kategoria / Biltegitratze kategoria	135.716 €
6. pizgarri-programa – Bizitegi-sektorean energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea (7. osagaia).	17.132.172,74€

Bigarrena.– Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren kargurako diru-kopuruaren bosgarren igoyeraren eta 2022ko uztailaren 8ko EEEdo zuzendari nagusiaren Ebazpen bidez (2022ko uztailaren 26ko 143. EHAA) EEEden aurrekontuan esleitutako funts propioekin pizgarri-programara bideratutako 20.000.000 euroko gehieneko zenbateko osagarriaren arteko osagarritasun-erregimenari dagokionez, Ebazpen horren bigarren erabakian ezarritakoa bete beharko da.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAA Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honek bide administratiboa agortzen du; hortaz, nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio EEEdo zuzendari nagusiar, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako auzitegietan, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Bilbao, 2024ko abenduaren 12a

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
MIKEL AMUNDARAIN LEIBAR.